

# KANALAK

Kanalari dagokionez, argi eta garbi dago gurea nahastua izango dela; alegia, bai kanal propioaz baita elkartutakoaz ere baliatuko gara gure enpresa aurrera atera ahal izateko. Beste hitzetan esanda, gure webgune propioa edukiko dugu, gure enpresaren produktuak saldu ahal izateko. Nolanahi ere, gure produktua Amazon bidez ere salduko dugu. Izan ere, online salerosteko enpresa mundu mailan aski ezaguna den horretan, ‘Bello Tempo’ ispiluaren ospea nahiz hedapena areagotzeko aukera bikaina da, izan ere hasieran zailagoa izango da gure enpresa ezaguna bilakatzea.

Gure produktuak bezeroari irisarazteko, bi aukera izango dituzte. Batetik, haien etxean jasotzeko aukera izango dute. Horretarako, *DHL* enpresa handiak baliatuko ditu bidalketa horiek. Bestetik, etxean jaso nahi ez badute, jasotzeko puntu desberdinak jarriko ditugu. Horiek, hasiera batean, Euskal Herriko zenbait altzari denda izango dira. Gipuzkoan, Lezoko *Muebles Rey* eta Usurbilgo *Muebles la Chimenea* izango dira. Bizkaian, berriz, Durangoko *Muebles Shiade Abadiño*, Bilboko *Kibuc* eta *El Paraiso* denda izango dira.

Horrez gain, kontuan hartu beharrekoa da Amazoneko prezioak algoritmo zehatz batek bideratzen dituela, merkatuan egokienak diren prezioak jartzen dizkie produktuei. Horrenbestez, ezinbestekoa da gure webguneko prezioak Amazonekoak baino baxuagoak izatea, konpetentzia saihestearren. Hau da, prezioak parekatzea eta etengabe berrezartzea gure produkturen salmenta kontrolpean izateko.

Webgunearen kudeaketa egokia bermatzearen, teknologia eta informatikako sailean dugun jakinduria zabalaz baliatuko gara. Horrenbestez, webguneak makina bat atal izango ditu; jakina, denak erabilerrazak zein praktikoak. Alde batetik, Interneten erabilgarri dauden denda seguru guztien eskaintza egongo da, bereziki luxuzkoena. Hala nola, Gucci, Dior, Prada, Valentino, etab. Ildo beretik, diseinatzaile berrien produktuak ere sustarazi nahi ditugu. Horien artean, Rick Owens, Heliot Emil, Marc Jacobs eta Kate Spade diseinatzaileenak aurki ditzakegu.

Bestalde, erabiltzaile ororen azken bilaketak, erosketak eta gustuak kontuan hartuz, iradokizun hobegoak egingo ditu webguneak garatutako algoritmo zehatzari esker.